# Xedapen Orokorrak

## OSASUN SAILA

### Zk-6410

274/2003 DEKRETUA, azaroaren 11koa, osasun-arloko publizitatea arautzen duen dekretua laugarren aldiz aldatzen duena.

550/1991 Dekretua, urriaren 15ekoa, osasun-arloko publizitatea arautzen duena, hiru aldiz aldatu da 112/1994, 7/1996 eta 44/1998 Dekretuen bidez.

Arau horretan, osasun-arloan publizitatea egin aurretik administrazio-baimena lortu behar dela ezartzen da, baimen hori lortzeko prozedura finkatu, eta osasun-arloko publizitatetzat zer hartzen den ere zehazten da 2. artikuluan.

Horrez gainera, osasun-arloko publizitatea begiratu eta jagoteko, eta aldez aurretik eskuratu beharreko baimena proposatu eta tramitatzeko, kontrol-batzordea ere sortzen du 4. artikuluan; batzordea profesionalek osatuko dute, honako erakunde hauek ordezkatuta: osasun-administrazioa, osasuneko elkargo ofizialak eta kontsumitzaile-elkarteak.

Aipatutako arau hori martxan jarri zenetik hona urteak igaro dira, eta, tarte horretan izandako esperientziak aintzat hartuta eta arau batzuk aldatu direla ikusita, komenigarri ikusten da araua moldatzea.

Alde batetik, arauaren zati batzuetan ondo zehaztu behar da ea osasun-arloko publizitate hori zer den eta horren barruan zehatz-mehatz zer sartzen den; atal batzuetan, beraz, beste era bateko zentro eta zerbitzu batzuk ere berariaz hartu behar dira kontuan, esate baterako, hauexek: beltzaran jartzeko zentroak, adinekoentzako egoitzak, laneko arriskuak prebenitzeko zerbitzuak, ortopediak, podologia-zentroak baita audioprotesi eta hortzetako protesien kabineteak ere. Jarduera horiek ere, osasunari lotuta egonik, eragina izan dezakete gizakiaren osasunean, eta, beraz, komenigarria da horien publizitatea ere jagotea.

Beste alde batetik, osasun-arloko publizitatea jagoteko kontrol-batzordea osatzerakoan, aintzat hartu behar dira Osasun Saileko Osasun Plangintza eta Antolamenduko Zuzendaritzak osasun-arloko publizitate-kontuetan dituen eskumenak, eta Confebask-en jardue-ra-esparrua ere bai. Horrez gain, kontuan hartu behar da Euskal Autonomia Erkidegoko Podologoen Elkargo Ofizialeko profesionalen jarduna nabarmen hazi dela, Euskal Autonomia Erkidegoko Fisioterapeuten Elkargo Ofiziala ere eratu dela, eta foru-aldundiek ere egoitzetako gizarte-zerbitzuetan badihardutela. Hori guztia oinarri hartuta, komenigarri ikusi da batzordean beste lau kide sartzea.

# Disposiciones Generales

## DEPARTAMENTO DE SANIDAD

### N°-6410

DECRETO 274/2003, de 11 de noviembre, de cuarta modificación del Decreto que regula la publicidad sanitaria.

El Decreto 550/1991, de 15 de octubre, por el que se regula la publicidad sanitaria, fue modificado por los Decretos 112/1994, 7/1996 y 44/1998.

En dicha norma se somete a autorización administrativa previa a la publicidad sanitaria y se regula el procedimiento para su obtención, además de establecer en su artículo 2 qué se entiende por publicidad sanitaria.

También crea la Comisión de control de la publicidad sanitaria en su artículo 4, formada por profesionales de la administración sanitaria, de colegios oficiales sanitarios así como de asociaciones de consumidores, para su control y vigilancia y para tramitar y proponer las autorizaciones administrativas previas.

Los años transcurridos desde su puesta en marcha y la experiencia acumulada a lo largo de los mismos, así como los cambios normativos surgidos aconsejan modificar la mencionada norma.

Por un lado, ha de ampliarse y concretarse en algunos apartados qué se entiende por publicidad sanitaria, dando cabida expresa a nuevos centros y servicios como son los de bronceado, residencias de tercera edad y servicios de prevención de riesgos laborales, así como a ortopedias, centros de podología y gabinetes de audioprótesis y prótesis dentales, dado que realizan actividades con una vertiente sanitaria que puede incidir en la salud humana, por lo que es conveniente someter a control su publicidad.

Por otro lado, en la composición de la Comisión de control de la publicidad sanitaria ha de tenerse en cuenta las competencias de la Dirección de Planificación y Ordenación Sanitaria del Departamento de Sanidad en materia de publicidad sanitaria, el considerable aumento de la actividad de los profesionales sanitarios del Colegio Oficial de Podólogos de Euskadi, la creación del Colegio Oficial de Fisioterapeutas de Euskadi , así como el ámbito de actuación de Confebask y la actividad de las Diputaciones Forales en el campo de los servicios sociales residenciales, lo que aconseja incluir cuatro nuevos vocales.

Horrenbestez, Osasun sailburuak halaxe proposatuta, Eusko Jaurlaritzako Aholkularitza Batzorde Juridikoa ados dela, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2003ko azaroaren 11n egindako bilkuran gaia eztabaidatu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATU DUT:

***Lehen artikulua.***– Urriaren 15eko 550/1991 Dekretuaren 2.1 artikulua honako era honetara idatzita geratuko da aurrerantzean:

«2. artikulua: 1.– Dekretu honen bidez osasun-arloko publizitatea arautzen da, honako hauek direnean pubizitate-egile:

a) Ospitaleko zein ospitalez kanpoko diren osasun-zentroak.

b) Bainuetxeak.

c) Analisi klinikoetako laborategiak eta farmazia-bulegoetan analisi klinikoak egiteko dauden atalak.

d) Botikin- eta farmazia-bulegoak.

e) Anbulantziako eta osasun-garraioetako zerbitzuak.

f) Farmazietarako eta animalien osasunerako ekoizkinen gordetegiak eta banatzaileak.

g) Nagusientzako eta ezgaitasunen bat duten pertsonentzako oinarrizko gizarte-zerbitzuak eta egoitzetako gizarte-zerbitzuak.

h) Gaixotasunetarako aseguru libreko entitateak.

i) Diagnosi-enpresak (txekeoak, odol-diagnosiak, haurdunaldiko azterketak-eta egiten dituztenak).

j) Optikak eta farmazia-bulegoetan dauden optika-atalak.

k) Edozein eratako tratamendua ematen duten enpresak, tratamendu hori medikoa zein paramedikoa izan, fisikoa zein psikikoa.

l) Edertasun-institutuak, beltzaran jartzeko zentroak eta saunak edo masajeak eskaintzen dituztenak.

m) Ile-tratamendurako zentroak.

n) Teknika medikoak zein paramedikoak irakasteko edo erakusteko zentroak.

ñ) Osasun-arloko profesionalak.

o) Ortopedia-kabineteak eta farmazia-bulegoetan dauden ortopedia-atalak.

p) Podologia-zentroak.

q) Audioprotesi-kabineteak eta hortzetako protesien laborategiak.

r) Osasun-arloan diharduten prebentzio-zerbitzuetako zentroak edo unitateak.»

En su virtud, a propuesta del Consejero de Sanidad, de acuerdo con la Comisión Jurídica Asesora del Gobierno Vasco, y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su reunión celebrada el 11 de noviembre de 2003,

DISPONGO:

***Artículo primero.***– El artículo 2.1 del Decreto 550/1991, de 15 de octubre, quedará redactado de la siguiente forma:

«Artículo 2.1.– Se regula por el presente Decreto la publicidad sanitaria realizada por:

a) Centros sanitarios hospitalarios y extrahospitalarios.

b) Balnearios.

c) Laboratorios de análisis clínicos y Secciones de análisis clínicos en las oficinas de farmacia.

d) Oficinas de farmacia y botiquines.

e) Servicios de ambulancia y transporte sanitario.

f) Almacenes y distribuidores de productos farmacéuticos y zoosanitarios.

g) Servicios sociales de base, servicios sociales residenciales para personas mayores y para personas afectas de distintas discapacidades.

h) Entidades de seguro libre de enfermedad.

i) Empresas de diagnóstico (chequeos, diagnóstico hematológico, embarazo, etc.).

j) Ópticas y Secciones de Óptica en las oficinas de farmacia.

k) Empresas que proporcionen cualquier clase de tratamiento médico o paramédico, físico o psíquico.

l) Institutos de belleza, centros de bronceado, saunas y masajes.

m) Centros de tratamiento capilares.

n) Centros docentes o de divulgación de técnicas médicas o paramédicas.

ñ) Profesionales de la sanidad.

o) Gabinetes ortopédicos y Secciones de Ortopedia en las oficinas de farmacia.

p) Centros de podología.

q) Gabinetes de audioprótesis y laboratorios de prótesis dentales.

r) Centros o Unidades de los Servicios de prevención con actividades sanitarias.»

***Bigarren artikulua.***– Urriaren 15eko 550/1991 Dekretuaren 5. artikulua honako era honetara idatzita geratuko da aurrerantzean:

«5. artikulua: 1.– Osasun-arloko publizitatea kontrolatzeko batzordeko kideak Osasun sailburuak izendatuko ditu (batzordeburua eta 19 kide).

2. Ondorengo hauek izango dira Batzordea osatuko duten kideak:

Batzordeburu, Osasun Saileko Osasun Plangintza eta Antolamenduko zuzendaria.

Batzordekideak, 19:

– Bat, hiru foru-aldundiek proposatuta.

– Bat, Euskal Autonomia Erkidegoko Medikuen Elkargo Ofizialek proposatuta.

– Bat, Euskal Autonomia Erkidegoko Farmazilarien Elkargo Ofizialek proposatuta.

– Bat, Euskal Autonomia Erkidegoko Odontologo eta Estomatologoen Elkargo Ofizialek proposatuta.

– Bat, Euskal Autonomia Erkidegoko Laguntzaile Tekniko Sanitarioen eta Erizaintzako Unibertsitate Diplomadunen Elkargo Ofizialek proposatuta.

– Bat, Bosgarren Lurralde-Ordezkaritzako Optiko-Optometristen Elkargo Ofizialak proposatuta.

– Bat, Euskal Autonomia Erkidegoko Psikologoen Elkargo Ofizialek proposatuta.

– Bat, Euskal Autonomia Erkidegoko Fisioterapeuten Elkargo Ofizialak proposatuta.

– Bat, Euskal Autonomia Erkidegoko Podologoen Elkargo Ofizialak proposatuta.

– Bi ordezkari, Kontsumitzaileen Elkarte edo Federazioetakoak (lurraldean bazkiderik gehien dutenak eta finkatuen daudenak, zentsuen arabera).

– Bat, Confebask-ek proposatuta.

– Bat, Osasun Saileko Araubide Juridikoko Zuzendaritzako teknikaria.

– Bat, Osasun Publikoko Bizkaiko Lurralde Zuzendariordetzako teknikaria.

– Bat, Osasun Publikoko Gipuzkoako Lurralde Zuzendariordetzako teknikaria.

– Bat, Osasun Publikoko Arabako Lurralde Zuzendariordetzako teknikaria.

– Hiru, Osasun Saileko Osasun Plangintza eta Antolamenduko Zuzendaritzako teknikariak.

***Artículo segundo.***– El artículo 5 del Decreto 550/1991, de 15 de octubre, quedará redactado de la siguiente forma:

«Artículo 5.1.– La Comisión de control de la publicidad sanitaria estará formada por un Presidente y 19 Vocales, nombrados por el Consejero de Sanidad.

2. La composición de la misma será la siguiente:

Presidente, el/la Director/a de Planificación y Ordenación Sanitaria del Departamento de Sanidad.

19 Vocales:

– 1 a propuesta de las tres Diputaciones Forales.

– 1 a propuesta de los Colegios Oficiales de Médicos de Euskadi.

– 1 a propuesta de los Colegios Oficiales de Farmacéuticos de Euskadi.

– 1 a propuesta de los Colegios Oficiales de Odontólogos y Estomatólogos de Euskadi.

– 1 a propuesta de los Colegios Oficiales de Ayudantes Técnicos Sanitarios y Diplomados Universitarios de Enfermería de Euskadi.

– 1 a propuesta del Colegio de Opticos-Optometristas de la Quinta Delegación Regional.

– 1 a propuesta de los Colegios Oficiales de Psicólogos de Euskadi.

– 1 a propuesta del Colegio Oficial de Fisioterapeutas de Euskadi.

– 1 a propuesta del Colegio Oficial de Podólogos de Euskadi.

– 2 representantes de las Asociaciones de Consumidores o de sus Federaciones debidamente censadas con mayor número de asociados e implantación territorial.

– 1 a propuesta de Confebask.

– 1 Técnico de la Dirección de Régimen Jurídico del Departamento de Sanidad.

– 1 Técnico de la Subdirección Territorial de Salud Pública de Bizkaia.

– 1 Técnico de la Subdirección Territorial de Salud Pública de Gipuzkoa.

– 1 Técnico de la Subdirección Territorial de Salud Pública de Álava.

– 3 Técnicos de la Dirección de Planificación y Ordenación Sanitaria del Departamento de Sanidad.

Idazkari izango da, Batzordeak berak aukeratuta, Osasun Plangintza eta Antolamenduko Zuzendaritzako ordezkarietako bat.»

AZKEN XEDAPENAK

*Lehena.*– Osasun sailburuak izango du honako Dekretu hau garatzeko eta gauzatzeko beharrezko diren xedapen guztiak emateko ahalmena.

*Bigarena.*– Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2003ko azaroaren 11n.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU

Osasun sailburua,
GABRIEL M.ª INCLÁN IRIBAR.

Actuará como Secretario uno de los representantes de la Dirección de Planificación y Ordenación Sanitaria, elegido por la Comisión de entre sus miembros.»

DISPOSICIONES FINALES

*Primera.*– Se faculta al Consejero de Sanidad para dictar las disposiciones necesarias para el desarrollo y ejecución del presente Decreto.

*Segunda.*– Este Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 11 de noviembre de 2003.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

El Consejero de Sanidad,
GABRIEL M.ª INCLÁN IRIBAR.

# Agintariak eta Langileria

## Oposaketak eta Lehiaketak

### OSASUN SAILA

### Zk-6411

457/2003 EBAZPENA, urriaren 23koa, Osakidetza - Euskal Osasun Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, ebazpen honetan agertutako hutsak zuzentzeko dena: 350/2003 Ebazpena, irailaren 1ekoa, Osakidetza - Euskal Osasun Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zuzendari nagusiaren ebazpen batzuen I. Eranskina aldatzeko dena; hain zuzen, ebazpen horien bidez, aukeraketa-probak egiteko deia egin baitzen, hainbat kategoriatan pertsonal estatutarioaren egoerara heltzeko, eta zehaztutako zerbitzu sanitarioetako erakundeetan destinoak betetzeko, erakunde publikoak 2002. urterako egin zuen lan-eskaintza publikoaren barruan.

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria arautzen duen 155/1993 Dekretuak 24.2.b) artikuluan xedatzen duenez, aldizkarian egindako hutsak edo omisioak maila bereko xedapen edo ekintza batez zuzenduko dira, baldin eta testuinguruaren bidez argi ulertzen ez badira eta, huts horiek zuzentzearren, xedapen, ekintza edo iragarkiaren edukia edo esanahia benetan edo itxuraz aldatzen bada.

Ildo horretatik, Osakidetza Euskal Osasun Zerbitzuko zuzendari nagusiak irailaren 1ean emandako

# Autoridades y Personal

## Oposiciones y Concursos

### DEPARTAMENTO DE SANIDAD

### N°-6411

RESOLUCIÓN 457/2003, de 23 de octubre, del Director General de Osakidetza-Servicio vasco de salud, por la que se corrigen errores de la Resolución 350/2003, de 1 de septiembre, del Director General de Osakidetza-Servicio vasco de salud, por la que se modificaban los Anexo I, relación de destinos, de diversas resoluciones del Director General que convocaban pruebas selectivas para el acceso a la condición de personal estatutario con destino en las organizaciones de Osakidetza-Servicio vasco de Salud en las categorías que se determinan, dentro de la Oferta Pública de Empleo del Ente Público para el año 2002.

El artículo 24.2 b) del Decreto 155/1993, por el que se regula el Boletín Oficial del País Vasco, establece que los errores u omisiones materiales que no se deduzcan claramente del contexto y cuya rectificación pueda suponer una real o aparente modificación del contenido o sentido de la disposición, acto o anuncio, se salvarán mediante disposición o acto del mismo rango.

Advertidos errores de dicha índole en el texto de la Resolución 350/2003, de 1 de septiembre, del Direc-